



235. zenbakia

· ABENDUA 2023 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Hiba Kamal Abu Nada

Hiriko gaua iluna da misilen distira izan ezik, isila bonbardaketen soinua izan ezik, beldurgarria erreguaren lasaitasuna izan ezik, beltza martirien argia izan ezik. Gau on, Gaza.

BIOGRAFIA

Abu Nada 2023ko urriaren 20an hil zen, 32 urte zituela, Gazako zerrendan, Israelgo armadaren bonbardaketa batean. Hil baino egun bat lehenago honako hau idatzi zuen:

“Hiltzen bagara, jakin ezazue pozik eta irmo gaudela, eta esan munduari, gure izenean, pertsona zuzenak garela, egiaren aldekoak”

Israel Palestinan eragiten ari den sarraskiaz ere idatzi zuen poema bat hil bezperan. Horixe da hilabete honetarako aukeratu duguna, omenaldi xume moduan. Abu Nada gogoan, sarraskia gelditu.

Hautatu



3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera

komunikazioa



pulunpe



amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok bat elkarteak, Iosu Alfaro, Patxi Irurzun eta Lourdes Iraizotz.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Atezko zuhaitza, zegoen zelaiatik, lekuz aldatzen. Izarpe Kanpinean dago orain. Egilea, Fernando Arriazu.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira abenduaren 7an bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Hautagaitzarik ez Atezko udalean*

07

Ingurumena. *Aldaketari moldatu*

08

Kronika. *Denok bat*

10

Albisteak.

14

Berezia. *Martin Azpirozen bertsoak*

15

Elkarriketa. *Haizea Astrain Mutiloa*

16

Ekimenak. *Sustraiak proiektua.*



20

Gure historia. *Iraizotzko zine-aretoa.*

22

Herrian bertan. *Aizarozko ostatua.*

23

Ardo Frexkoa. *Zaldia behar genuen.*

24

Aspaldiko Kontuak. *Basaburuko udaletxea.*

26

Komentarioa. *Udabeko bertsoak.*

27

Kirola. *Aizkora.*

28

Elikadura. *Lekaleak*

30

Zer ikusi amezti.eus-en

32

Zer irakurri. *Abendua*

34

Jaiotzak eta heriotzak. *Urria*



Hauteskundeek bigarren bueltan ere, herriko hautagaitzarik ez

Maiatzeko udal hauteskundeetan hautagaitzarik aurkeztu ez zen herrietan, azaroaren 26an ospatu da hauteskundeek bigarren erronda. Gurean, Atetzen kasua izan da, Nafarroako beste 37 udalerrirekin batera. EH Bilduren aurreko udal taldeak sei hilabete gehiagoz jarrai-tu behar izan du lanean, eta bigarren erronda honen ondoren ere, ez dago oso argi noiz arte luzatuko den haien jarduna

Gauza jakina da azken urteotan geroz eta zailagoa ari dela suertatzen herri txikietan —eta ez hain txikietan— udalean parte hartu nahi duten herritarrek topatzea. Izan daiteke beldu-rra, izan daiteke inplikazio falta edo beste arrazoiren bat, baina kontua da, maiatzaren 28an herria kudeatzeko talderik gabe gelditu zirela Nafarroako 38 udalerrri, tartean Atetz.

Sei hilabete beranduago, azaroaren 26an, berriz ospatu dira udal hauteskundeak herri ho-rietan. Askoren kasuan, lortu da bigarren deialdirako herritar talderen bat osatzea, baina ez guztietan. Arantzan, Areson, Atetzen, Barasoainen, Beriainen, Burgeten, Deikaztelun, Ezka-rotzen, Izaban, Muruzabalen, Urrotzen eta Zubietan, berriz, inork gutxi ezagutzen zuen al-derdi bat aurkeztu da: *Aulki Zuriak* —Escaños en blanco, gartzeleraz—.

“ **Azaroaren 26ko hauteskundeetan hiru pertsonak besterik ez dute eman boza Atetzen** ”



Aulki Zuriak alderdi politikoa. Nortzuk dira?

Atetzen bezela, Nafarroako aipatutako beste 13 udalerrietan ere *Escaños en Blanco* edo *Aulki Zuriak* alderdia bakarrik aurkeztu da azaroko hauteskundeetara. 2010ean sortu zuten alderdi hau Badalonan, Bartzelonan, eta bere helburu nagusia Espainiako sistema parla-mentarioaren aurrean protesta egitea eta sistema horren demokrazia falta salatzea da. Ho-rretarako, hauteskundeetara aurkezten dira, haien aulkiak hutsik uzteko gero. Modu horre-tan, diote, alderdi nagusiek ez diete haien boz txuriari edo abstentzioari 'etekinik' ateratzen. Protesta boza dela diote, azken batean.

Horrela aurkezten dute haien burua *Aulki Zuriak* taldeko kideek webguneko bideoan: “Al-derdien artean konbentzitzen zintuen bakar bat ere ez bazegoen, orain arte, hiru aukera zenituen hauteskundeetan: etxean gelditzea, baliogabe bozkatzea edo zurian bozkatzea. Aukera horiek, amaieran, bozkatu nahi ez dituzun alderdi horiei mesede egiten diote, aulki guztietan banatzen baitira. Orain, zure aulkia hutsik uzteko aukera duzu, eta zure aulkiaren dirua eta botere politikoa beste alderdi batek eramatea ekiditeko aukera. Horretarako sortu da *Aulki Zuriak* alderdia. Aulkiak hutsik uzten ditugu, soldata eta dirulaguntzei uko eginez, boz guztiek balio bera izan dezaten”.

Estatu mailako hauteskundeetan ez ezik, autonomikoetan eta udal hauteskundeetan ere parte hartu izan dute aurretik. Nafarroan, ordea, lehen aldiz aurkeztu da alderdia herri txikiotako hauteskundeetara, eta horregatik, herritar gehienak sorpresaz harrapatu zituen taldeak.



“Legezkoak baina guztiz antidemokratikoak diren kasuak ekiditeko”

Horrela argudiatu du alderdiak Nafarroako zenbait herri txikitan haien hautagaitza aurkeztu izana. Diotenez, hauteskunde sistemaren ‘hutsuneak’ nolabait betetzeko ideiarekin aurkez-tu dira. “Hauteskunde sistemaren hutsek eragin dezakete, zenbait kasutan, alderdi batek Udal bat bere gain hartzea boz bakar batekin. Garinoainen antzeko zerbait gertatu zen 2011ko udal hauteskundeetan. Alderdi batek Udala irabazi zuen 18 boz soilik jasota (bo-zen %5,6 besterik ez), zurian bozkatu zuten 305 herritarren aurrean”, diote haien webgu-nean. Kasu hartan, Derecha Navarra y Española alderdia izan zen Garinoaingo Udala azken momentuan, ‘paraxutista’ moduan irabazi zuena.

Azkenean, azaroaren 26ko hauteskundeetan, hiru pertsonak besterik ez zuten eman bozka Atezko udal hauteskundeetan. Bi boz zuri eta baliogabe bat izan ziren. Udala irabazteko gutxienekoa zen bozen %5 ez zuen jaso, beraz, *Aulki Zuriak* taldeak. Zer esan nahi duen horrek? Bada, kudeaketa batzordea eratuko dela datozen hilabeteotan, legegintzaldi hone-tan herria kudeatzeko taldea osatzeko.



Paula Ibero, Atezko alkatea:

“Nork kudeatuko du bailara berta-ko batek baino hobeki?”



▲ Paula Ibero

Lau urte eta erdi pasatu dira, eta alkate segitzen duzu...

Bai, eta, egia esan, oraindik ez dakigu aldaketa noiz gertatuko den ere. Hautagaitza erreal bat aurkeztu izan balitz, epe zehatzak izanen genituzke, uste dut abenduaren 18ra arte egonen ginatekeela. Baina, ezer ez dagoenez argi, badirudi oraindik jarraitu beharko dugu-la, oso ongi noiz arte jakin gabe.

Legegintzaldiaren zer nolako balorazioa egiten duzue?

Orokorrean, balorazioa oso positiboa da. Kontuan izanda tartean pandemia izan genuela eta horrek dena hankaz gora jarri zuela, uste dut nahiko ongi eraman genuela. Hiru proiektu edo ekimen nabarmenduko nituzke legegintzalditik.



Lehena, bailarako bidexken markaketarena da: 23 kilometro inguruko ibilbidea markatu du-gu, bertakoei nahiz kanpokoei bailara hobeki ezagutzeko aukera emanez.

Bigarrena, kultur eskolarena: urteak generamatzen bailararentzako lokal bat egitearen ideia-rekin, mota guztietako ekintzak egiteko. Bada, Eritzegoitiko kontzejuak eskola zaharraren lagapena egin dio Udalarari 20 urtetarako, eta diru laguntza desberdinen bidez, berrikuntza lanak egin ditugu. Martxan dago honezkeroko.

Eta, bukatzeko, uraren gaia nabarmenduko nuke: lehen, kontzejuen eskumena zen urarena, baina duela zenbait legealdi Udalaren eskutara pasatu zen. Lan eta gastu handiak suposa-tzen ditu uraren kudeaketak, baina legegintzaldi honetan sistema optimizatzeko lan handia egin dugu, bereziki jarioak detektatzeko. Oraindik obra egin gabe dago, baina Eltzaburutik Beuntzako depositura doazen hoditeria aldatuko da, sei kilometrotan, eta diru laguntzei esker kostu oso txikiarekin eginen da obra hori. Bestetik, Eritzegoitin ur depositu berria ere eginen da.

Ez maiatzeko hauteskundeetan eta ezta azarokoetan ere, ez da herritarrik aurkeztu Udalerako. Ez dago interesik edo zer ari da gertatzen?

Tira, guk EH Bildu bezala deialdia egin genuen maiatza baino lehen, argi genuelako gure taldea lau urtetarako bakarrik aurkeztu zela. Bilera deitu genuen, baina ez zuen arrakasta handiegirik izan, eta, beraz, jendearekin hizketan hasi ginen, independente bezala ere au-keraz bazegoela adieraziz... baina inork ez du pausorik eman. Zergatik izanen den? Ez dakit, egia da herri txikietan zaila izaten dela askotan, bizilagunarekin parez pare bizi zarelako eta askotan kointziditzen duzulako. Jendeak, agian pentsatuko du: "Ez dut arazorik nahi eta ez naiz horretan sartuko...". Baina, kontua da, norbaitek egin behar duela!

Eta, azaroko hauteskundeetara ere inor aurkeztuko ez zela pentsatzen zenutenean, hara non, Escaños en blanco edo Aulki zuriak izeneko taldea aurkeztu den.

Bai, sekulako sorpresa hartu genuen, zeren, bailarako jendearekin hizketan, sumatzen zen hemen ez zela talderik aurkeztuko. Horregatik, burutan genuen zuzenean kudeaketa batzordearen aukera. Baina, buletin ofizialean hautagaitzak argitaratu zirenean

“ Eskerrak eman nahi dizkiot bailarako jendeari emandako babes eta laguntzagatik ”

begira hasi nintzen, eta... hara! Aulki zuriak izeneko talde bat. Hasieran ez nuen ezer ulertzen, eta hainbat herritarrak ere deitu zitaten hori zer zen galdezka. Kuxkuxeatzen jarri nintzen eta ikusi nuen nor diren eta zer egiten duten. Tira, alderdi bat da, beste edozein bezain erres-petagarria... gustatu izan zitzaidan haiekin hitz egitea, baina ez dut aukerarik izan. Hau-teskunde eroldaren bozen %5 jaso beharko lituzkete, hasteko. Eta, hori lortuko balute ere, haiek diote inoiz ez dutela kredentzialak hartuko. Beraz, aurreko agertoki berean geundeke: kudeaketa batzordearen kasuan.

Zer dakizue kudeaketa batzordeari buruz? Nola osatzen da batzordea?

Ez dakigu gehiegi, irakurritakoa da dakiguna. Behin administratibotik jakinarazten denean ez dagoela hautagaitzarik, kudeaketa batzordea eratzera pasako dira. Herri txikien kasuan, badirudi bilera ireki bat deitzen dela, herritar guztiak gonbidatuz. Bertan, batzordea osa-tzeko boluntarioak ateratzea espero da. Zerbait atera beharko da hortik. Bestela, ez dakit zein metodorekin, Nafarroako Gobernuak izendatuko lituzke komisioko kideak... baina es-pero dugu horretara ez iristea eta bileratik norbait ateratzea. Behin batzordea osatuta, ber-tako pertsona bat aukeratzen da batzordearen presidente funtzioetarako. Kontuan izan beharra duguna da, bailara batean bizi bagara eta bertan bizitza egotea nahi badugu, nahi-taezkoa dela parte hartzea. Gu hor egonen gara laguntzeko prest, ni lehenengoa. Izan ere, inork kudeatuko du bailara bertako batek baino hobeki?

Agur moduan zerbait esan nahi zenieke herritarrei?

Bai, bailarako jendeari eskerrak eman nahi nizkioke, gauza askotan parte hartu baitute he-rritarrek. Uste dut, orokorrean, legegintzaldi nahiko lasaia izan dugula, eta oso eskertua nago mundu guztiarekin eman diguten babes eta laguntzagatik. Eta, lehen esandakoa: he-men jarraituko dugula edozertan laguntzeko. Nahitaezkoa dugu bailararengatik lan egitea bertan bizi nahi badugu.



moldatu

Hegaziak klima aldaketara moldatzen ari dira

Azaro hasierako asteetan, Etsain besarkatzen duten pagadietako okil beltzak txoratuta zebiltzala ematen zuten. Herritik gertu bizi den bikotea etengabe ari zen adar eta enborrak danbor bilakatzen (hauek bai profesionalak adarra jotzen!). Haien tarrapatadak eta oihuak egunero entzuten genituen eta, egia esanda, arraro samarra zen, jokabide hau udazkenean baino arruntagoa baita udaberrian.

Ziur aski, temperaturek eta eguraldi "onak" txoratuta ibiliko ziren okil beltzak. Klima aldaketa? Ala data hauetan ohikoa den San Martingo uda-txikia? Zer esan nahiko dute basotik datozen ahots hauek? Zabal dezagun belarria eta begirada inguruan ditugun beste hegazti batzuetara, ea haien laguntzaz egoera ulertzeko gai ote garen, guk geuk ere gure erantzunak sortzeko.

Gure artean bizi diren hegazti espezie asko migratzaileak dira. Haien bidaiak, gureak ez bezala, ez dira aisialdirako. Izan ere, jakina da naturak badituela urtean zehar bere estualdiak: elikagaiak ez dira etengabe ekoizten, eta migrazioa gabezia horren aurreko erantzun bat da. Gauden hilabete honetan, abenduan, kurriloak dabilta gure zeruetan migrazioa nolabait ixten.



▲ Okilbeltza. *Egilea, hedera.baltica, flickr*

Hegaztien migrazioak neguko baldintza latzekin lotzen baditugu ere (kurriloen kasuan argi eta garbi), udan ere jakia urriagoa da. Gizakion jai asko uzta garaiarekin lotzen dira. San Ferminak, adibidez, gari eta garagar uzta ostean ospatzen dira. Oparotasun horren ondoren paisaia horiek idortuta, akituta, geratzen dira, eta bertan bizi diren hegazti askok migratzeko premia dute. Hauen artean miru beltza, zikoina zuria, mirotz urdina eta sorbeltz arrunta ditugu. Eta azken hamarkadan guzti hauek, apurka, haien migrazioa garaia aurreratzen ari dela behatu da nafar Pirinioetan. Are gehiago, urteko bigarren estualditik ihes egiten duten hegaztiak, neguko estualditik aldentzen direnak, aurkakoa egiten ari dira: urtero beranduago pasatzen dira gure bailaretatik. Kurriloez gain, miru gorria eta usoak ditugu hauen artean ezagunenak. Laburbilduz: beroak eragindako estualdia gero eta lehenago iristen da, eta hotzak eragindakoa, aldiz, gero eta beranduago.

Klima-aldaketa beraz hemen da jada. Eta hegazti migratzaileak haren eraginetara moldatzen ari dira. Baita gure bailarek sortzen duten korridore naturala erabiltzen dituztenak ere. Izaki bizidun hauek malgutasuna erakusten digute. Adaptazioa. Elikagaiekin, paisaiekin, dituzten lotura guztien bitartez haien garaia irakurtzeko gai dira. Eta egokitze erantzunak sortzeko gai ere badira.

“**Klima-aldaketa hemen da, eta hegazti migratzaileak haren eraginetara moldatzen ari dira**”

Etorkizunak gurera estualdirik ekartzen badu, ze lotura sendotzen hasi beharko ginateke gu gaur? Okil beltza ez da hegazti migratzailea. Urte osoa Etsain inguruko basoetan ematen du bikote horrek. Belaunaldiz belaunaldi. Eta, arraroa bada ere, okilek adierazten diguten hori ongietorriaren antza du. Basoan jakina delako gizakion bidaia biratzeaz dagoela, gabeziatik aldentuz, garapen berri, sakon eta emankor baterantz. Oztopo guztien gainetik. Zure ahotsa ere ongietorria da basoetan.



losu Alfaro

Adarra jotzen. Basotik datorren uhina. losu Alfaroren kolaborazioa Esan Erran irratia



Nafar Pirinioetan hegaztien migrazioa eta klima aldaketa aztertzen duen ikerkuntza





Poltsa piper-kontserbaz beteta, Lodosako txangotik bueltan

Lodosarako txangoa egin dute azaroan, eta, abendu hasieran, udazkeneko mus txapelketa jokatu da jubilatuen elkartearen.

Lodosarako txangoa

Aurreko alean aurreratu genuen bezala, azaroko txangoa Lodosara egin genuen. Goiz mugitu, autobusak hartu eta abiatu ginen, ia 100 lagun. Bidea luzea egin ez zedin, eta bidetik bidenabar zegoenez, gosaltzera gelditu ginen Aiegiko Iratxe jatetxean.

Handik Lodosarako bidea hartu genuen, laino artean, halako goiza baitzegoen, eguzki izpien bila, besteak beste. Lodosara Ebro ibaiaren ertzean dago eta, Nafarroako mugan, erreka beste aldean La Rioja dauka. Asteazkena izanik feriatu eguna dute, bi zatitan banatua. Batean arropa postu artean erreminta eta etxe tresnaren bakanak zauden. Horretan utzi gintuen autobusak. Bestea barazkiarena da eta aurretik bizpahiru karriketara zegoen. Izan genuen beta beste gauzak

ikusteko ere. Taldetxo bat garai batean bizitutako kobak ikustera joan ziren. Izan ziren eliza ikustera ere hurbildu zirenak eta, nola ez, piper-kontserbak egiten diren etxeetara ere joan ginen. Horrela pasa genuen goiza eta autobusa hartzera gindoazenean hainbat poltsa ikusten zen eskuetatik zintzilik.

Bazkaltzera lehengo jatetxera itzuli ginen, goizeko kontrako bidaia eginez eta oraingoan eguzkitik laino tartera sartu ginen.

Bazkari fina eta goxoa eman ziguten hamarnako mahietan banaturik. Kafea ondoren, bingo saio bat eskaini ziguten eta ardo botilak izan ziren saria. Ondoren, musika jarri zuten, dantzariak ez ziren falta izan.

Ezta ere betiko muslariak, partida batzuk jolasteko beren txokoa bilatu baitzuten. Arratsalde gozagarria pasa ondoren, autobusak hartu eta etxera itzuli ginen, hileroko txangoak gogobetetzen gaituen sententzioarekin.





Udazkeneko mus txapelketa

Abenduaren 1ean udazkeneko mus txapelketari bukaera eman genion, ohitura bezala jokalariek guztien arteko bazkaria eginez, azken partidak jokatu aurretik. Aurtengoan 22 bikotek jokatu dute txapelketa, beti bezala Larraintzarko bentako ostatuan. Mahai guztiak behar izan zituzten bere partidak jokatzeko.

Liga moduan egiten da sailkapena eta azken partidetan erabaki ziren sarituak. Emaitzak jaso ondoren hau da sailkapena:

Txapeldunak:

Joaquin Echenique –
Manuel Ciganda

Bigarrenak:

Nicolas Iragui – Martin Zalba

Hirugarrenak:

J. Domingo Cilveti –
Pedro J. Gerendiain




Zorionak saridunei eta zuen sarietaz gozatzea opa dizuegu, baina jakin ezazue udaberrian berriz saiatuko garela errepika ez dezazuen.

Abenduan urte bukaerako festa ospatuko dugu, urtean hildakoei omenalditxoak eginez. Datorren alean kontatuko dizuegu

gertatutakoa. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatuena Elkartea



Carrefour
express

Zugandik gertuago

**¡Zure zain
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8
31867 Aroztegi - Atezko Ibarra
IZARPE KANPINA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

9'00 - 20'00

LARUNBATA ETA IGANDEA

9'00-14'00 / 16'00 -20'00





Greba feminista orokorra, eskualdean ere bai

Azaroaren 30ean greba feminista orokorra deitu zuen Euskal Herriko Mugimendu Feministak. Eskualdean ere, greba komite bat osatu, eta aldarrikatzeko eguna izan zen. Guztion zaintza eskubide kolektiboa eta zaintzarako sistema publikoa garatzea izan ziren aldarriak.

Oihanzabal eskola izan zen grebaren egoitza. Bertan kokatu baitzen *Denon bizitzak erdigunera* gunea, greba egin zuten guztiondako eta baita zaintza beharrak dituenendako ere. Gainera, landa eremuan abereen zaintzak duen garrantziaz ohartuta, eta sektore horretan greba egiteko zailtasunekin kezkatuta, grebaren alde zegoen herritarrei amantalak balkoietan jartzea eskatu zitzaizen, bereziki greba egiteko aukera ez zuten horiei.

Horrela hasi zen, hain zuzen ere, greba eguna: 00:00etan amantalak balkoian ezarriz eta kazerolada batekin. Aipatu gunea 8:30etik aurrera zabaldu zuten eskolan, eta 10:45ean auto-karabana antolatu zuten Jauntsarastik Irurtzungo Matxainera. 12:00etan manifestazioa izan baitzen Irurtzunen, eta horrekin bat egin zuten.



Basaburuko kultur etxeari Luzia Goñi izena jarriko diote

Aizarotz - Abenduak 10



12:00 // "Luzia Goñi" Kultur Etxearen Izendatzea

12:30 // Luzia Goñiren Bertso musikatuak
(Joana Zigarido eta Ekain Alegre)

14:00 // Herri Bazkaria 20 €
(Izena eman: ☎ 660 97 04 06)

16:15 // Luziaren Omenezko bideoa

16:30 // Bertso Saloa:

- Maialen Lujanbio
- Alazne Untxalo
- Saioa Alkaiza

Luzia Goñi Ollas
Omenaldia
Hamalau ofizio, hamabost mixeri

Aizarotz Herria - Luziaren Familia

Abenduaren 10ean gauzatuko da izendapena, ekimen batekin eta egun osoko egitarauarekin. Tartean bertso saio puska izanen da: Maialen Lujanbio, Alazne Untxalo eta Saioa Alkaiza etorriko dira.

Ekintza Basaburuko Basandereok talde feministak bultzatu du. "Aspalditik Luzia Goñiren bizitza ikusarazi nahi genuen. Emakumezko erreferenterik ez dugun honetan, Luzia Goñi emakume ausartaren adibidea zela pentsatu genuen. Hainbat alderditan espazio publikoa bete zuelako eta emakume bertsolaririk ezagutzen ez zen garai batean jendearen aurrean azaldu zelako. Horregatik, 2022an egutegiaren azala eskaini genion", azaldu digu Mikaela Elizalde, Basandereok taldeko kidea.

Egutegiko azala eskaintzeaz gain omenaldi nabarmenago bat egin nahi zioten, eta, horrela bururatu zitzaizen kultur etxearen izendapena: "Luzia Goñi Aizarotzen jaio zen eta kultur etxeak ez du izenik... beraz, Basandereok Basaburuko Udalarari bere izena jartzeko eskatzea erabaki genuen". Eta, udalak baiezkota eman zien.

Abenduaren 10ean egingen da izendapen ofiziala, eta egun osoko egitaraua antolatu dute ospatzeko. Gainera, Aizarozko gazte talde batek Luzia Goñiren murala margotuko du.



Basakaitz baseliza zaharberritu dute Etsainen

San Isidoren irudia eta Basakaizko ama birjinarena dute bertan. Horregatik, urtero, San Isidro ondorengo igandean (maiatzaren 15aren ondorengoan) erromeria egiten dute. "Nekazariak mirespena diote San Isidrori eta urtero biltzen gara baselizan. Eta, urtero pentsatzen genuen, hemen zerbait egin behar da", azaldu digu Reyes Perez etsaindarrak.

Izan ere, duela 30 urte egin zioten azken eskuhartzea, teilatua indartzeko, baina ordutik hondatzen joan da. Teilatua eroriko zela ere beldur ziren, eta, azkenean, zaharberritzeko antolatu dira: "Agustin Elizalde, Anueko apaiza, 90 urte izana ere, lanerako prest dago beti. Azkeneko erromerian zerbait egin behar zela esan zuen, komisioren bat sortzeko ideia ere bota zuen, eta gazte batek ere ardura hartu zuen. Hurrengo astean ingurua garbitzera joan ziren, sasiek hartuta baitzuten baseliza eta horrela jarri zen martxan zaharberritzea". Maiatzaren 31n hasi ziren eta urrian bukatu dute.

Herritarrek eskainitako diruarekin erosi da materiala eta lan guztia auzolanekin egin da. Gainera, Larrasoaineko hainbat herritarrek ere lagundu dute, Reyes Perez: "Giro ederrean eta lan taldean egin da dena. Bertan 10 eta 12 pertsona artean biltzen ziren

lan egiteko, baina gero bakoitzak ahal duen ekarpena egin du, ekonomikoki, makina eta tresna aldetik, beste boluntario batzuek lanean ari zirenei janaria eramaten genien...".





Mendialdeko Azoka Ibiltariaren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek

2020an egin zen lehen aldiz Mendialdeko Azoka Ibiltaria, Cederna Garalur landa garapenerako elkarteak bultzatuta. 2023an, 9 merkatu egin dira guztira, Nafarroako Mendialdeko 9 herritan. Gurean, Imotzen, Atetzen eta Basaburuan egin izan dira azokak. Aurten, Jauntsaratsen izan zen lehen azoka, uztailaren 30ean, eta Atetzen, berriz, Beuntzan ospatu zen urriaren 15ean. Ekimenaren antolatzaile eta bultzatzaileek urtearen balantzea egin zuten Lekunberrin azaroaren bukaeran. Jakitera eman dutenez, orokorrean, urtearen eta azokaren urteotako ibilbidearen balantze positiboa egiten dute.

“Batez beste 25 postuk hartu dute azoketan, gehienak (%75) eskualdekoak eta elikagaiak ekoizten dituztenak izan dira”, adierazi dute prentsa oharrean. Salmentei dagokionez, postuetako ekoizle eta artisauei inkesta

pasatu diete, eta erantzuna uniformea izan ez arren, oro har aurreikuspenak bete direla azaldu dute. “Are gehiago, aurten, azokaren batean, aurreikuspenak gainditu ere egin dira, hala nola Araitzen, Larraunen, Basaburuan eta Leitzan”, diote.

Tokiko produktuen eta bertako artisau eta ekoizleen nortasuna eta ospea indartzeko asmoz abiatu zuten Mendialdeko Azoka Ibiltaria 2020an, COVIDaren pandemia garai betean. Urteotan berrikuntzak izan ditu —esaterako, aurten, azokak herri bakoitzeko beste ekimen garrantzitsuren batekin batera egitea erabaki zuten—, baina oinarrian filosofia eta helburu berberak izaten jarraitzen du. Balorazio positiboa ikusita, 2024an ekimenarekin jarraituko dutela jakinarazi dute bultzatzaileek, eta komunikazioa eta zabalkundea indartzeko asmoa ere adierazi dute.





Benita Sasturainek 100 urte (1923-2023)

Jauntsarasko Benita Sasturain Alberrok ehun urte bete ditu azaroaren 25ean. Azken urteetan Gerendiango Zahar etxean dugu (Bere ahizpa Joxepitarekin batera joan zen bertara 2017ko martxoan)

Jauntsaratsen 13 urtetarik ia 94 urte bete artio, dendaria izana eta estankoa ere eraman zuena beste zeregin askoren artean.

Urte anitzez ere udaleko depositaria izana.

Pulunpetik zorionak bidaltzen dizkiogu, eta osasuna da opa dioguna.



Olagueko azken maistra

Maria Angeles Diez de Ultzurrun Elizalde

1978-1979ko ikasturterako etorri zitzaigun Maria Angeles Diez de Ultzurrun Elizalde, luzaidarra, gure eskolara. Eta 1989an bukatutzat eman zuten hemengo eskola, eta haurrak eta maistra Atarrabiara joan behar izan zuten, Lorenzo Goikoa kolejiara.

Aurretik Mezkitzen egon zen, eskola hertsu zuten artio, eta handik Garraldako eskolen kontzentrazioan urte bat egin ondoren Olaguera etorri zen.

Hemen zela, Lanzko Emilio Irurita, Karakoetxeko semearekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten: Ana eta Iñaki. Olaguetik joan ondoren Diez de Ultzurrun-Irurita familia Burlatan bizi izan da, nahiz gure herriarekin eta Lantzekin ez duen harremana inoiz galdu.

Olaguen berekin ibili ginenon bihotzean arrasto sakona utzi zuen maistra dugu Angelines.

Bihotzean zaitugu Angeles. Egun handira artio.

Goian bego Angeles Diez de Ultzurrun.



▲ Olagueko eskola ataria



▲ Angelines, Maria Zilbeti eta Mikel Urdanotzekin



Maria Txibiteri

bertsoak

Nafarroan euskararen giroa

Napar Gobernun Chivite nausi,
Gure hizkuntza berriz estu,
Ez baitu maite pixer bat ere;
Eta dena bere esku.
Bide zarretik saiatzen da ta,
Eztu berririk agertu,
Zarra tamalez, ez du zuzendu,
Geiago dena, okertu;
Indar batean, bizkarra emanaz,
Egin baitigu baztertu.

Beituta zorrotz gure euskera,
Hizkuntza guzin lorea,
Haiñen ederra haiñen goxoa,
Bai al du Mundun pareta?
Inbidiz josik esaten dute:
Hizkuntz hori da pobrea;
Aleman, ingles eta frantsesak
Omen dute balorea.
Pesene, Upene, bai eta Franco
Zein da txarra, zein da hobea?

Gimeno jauna eta Chivite,
Hauek resta eta ez suma.
Urteak pasa, eta okerrago
Euskararen etorkizuna;
Gure eskaerak beti hutsean,
Ta exkaxa erantzuna;
Nire ahotik, ateratzen da
Hoi kontrako isuna.
Saiatuko naiz, gogor mantentzen
Gure hizkuntza kuttuna.

Martin Azpirotz etxalekuarrak paratuak

(Hamarreko handian. Eta doinua,
"Itsasoari begira")

Oharrak:

-Hamarreko handia edo **bost puntuko handia**, bertsolaritzan, 10 eta 8 silabako bost ahapaldi dituen bertsoa da.

-Chivite andrea: Nafarroako presidentea

-Gimeno jauna: Hezkuntza kontseilaria.

Entzun nahi duenari, Amezti.eus-en zintzilikatu dugu Martinek berak kantatutako bertso saila





Haizea Astrain anotzibartarra, Goazenen hamargarren denboraldian

Anotzibarren hazi da 19 urteko Haizea Astrain Mutiloa. Antzerkiak eta abesteak txikitatik erakarrita, batxilergo artistikoa egin zuen Larraintzarren ikasketak bukatu ondoren. Orain, Madrilen ari da arte dramatikoa ikasten, hirugarren urtez; eta, aurten, ETB1eko Goazen! telesail arrakastatsuan parte hartzeko hautatu dute. Honezkeroko grabatu eta zinemaldian aurkeztu dute.

• Norbaitek telesaila ikusi ez badu, zergatik ikusi beharko luke?

Goazen oso telesail dibertigarria izateaz gainera, gaurkotasuneko gaiak lantzen dira. Basakabin uda pasatzen duten ikasleek abentura ugari bizitzen dituzte. Ikusleek dibertitzeaz gain, ikasi egiten dute etxetik. Nik uste dut horiek arrazoi potoloak direla.

• Nola sartu zinen Goazenen taldean? Kastingak egiten al dituzte?

Bai, hori da. Kasting bidez sartzen da Goazenen. Nire kasuan lau fase izan zituen, otsailtik maiatzera. Proba horietan antzeztu, abestu eta dantzatu egin behar da.

• Ziur aski lan asko dago kameraren atzean ere, eta guk gero ordubetea ikusten duguna ikusteko, orduak ematen dituzue zuek grabatzen?

Bai, lana handia dago kameraren atzean. Esate baterako, telebistan hiru minututan ikusten den musikal zati bat, grabazioak gutxienez ordu eta erdi irauten du. Ez daude berdinak diren bi egun. Batzuetan goizeko 7:30ean hasi eta sei sekuentzia izan ditzaket. Beste egun batzuetan beranduago hasten naiz lanarekin, sekuentzia gutxiago ditudalako. Normalean sekuentzia gutxi ditudan egunetan edo tarte

handia badut sekuentzia batetik bestera, estudioa joaten naiz kantak grabatzera.

• Goazenen, gainera, antzeztu bakarrik ez, dantzatu eta abestu ere egiten duzue; horrek izanen du bere zailtasuna, zuk nola bizi duzu?

Txikitatik abestea asko gustatu zait, eta musika eta antzerkia beti egon dira nire alboan. Dantzatzea ere asko gustatu zait baina oso denbora gutxian ikasi behar genituen koreografiak eta horrek bere zailtasuna izan du. Baina oso dibertigarria izan da prozesua, eta oso jende berezia ezagutu dut bidean.



▲ Lea

• Goazenen 10. denboraldia da, gainera, eta 100 kapituluak gaindituko dira denboraldi honetan, denboraldi berezian sartu zara taldean, ezta?

Dudarik gabe. Gainera, aurten, Donostiako zinemaldian izan genuen aurre estreinaldia. Eta nire lehenengo kontzertua, Learen azalean, San Mamesen izan zen, gainera. Hori ez da egunero gertatzen!

• Learen azalean jartzen zara telesail honetan, nolakoa da Lea? Zer izan da zailena bere azalean jartzerakoan eta zer errazena?

Leak oso gustuko du txantxak egitea, baina bere txantxek ondorio larriak ekarriko dituzte batzuetan. Udalekura, Basakabira, Noa bere lagun minarekin haserretuta sartuko da. Baina, udan zehar, lagun berri asko eginen ditu eta abentura asko biziko ditu.

• Zerk erakarri zintuen arte dramatikotik?

Galdera hau egiten didaten bakoitzean ez dut oso argi zer erantzun. Hitz batean laburbildu beharko banu, sentsazioa esango nuke. Hau da, abesten zein antzezten dudana bakoitzean nire gorputzak duen sentsazioarekin geratzen naiz, hori betirako da. Hori izan da honaino ekarri nauen bultzada edo zergatia.



Larraitzarko ikastetxeko ingurumen proiektua, hausnarketa unean

Baratzea, elikagai-hondakinen kudeaketa eta biodibertsitatea landu ditu aurten proiektuak. Irakasleak, ikasleak, gurasoak eta jantokiko langileak elkartu ditu lankidetzan eta emaitzarekin pozik daude. Ekimen hauen garrantziaz sinetsita, haiekin jarraitzeko asmoa dute. Sustraiak proiektua, dena den, hausnarketa une batean dago orain.

Ikasleek haien ingurua ezagutzeko helburuarekin jaio zen Sustraiak proiektua, eta, horretarako, gai orokor bat aukeratzen da urtero, eta gai horrekin zerikusia duten ekintzak eta ekimenak antolatzen dituzte ikastetxean. Lehenengo urteetan aste edo egun zehatzetan egiten zituztenak ikasturte osora eta maila guztietara zabaldu dira. Proiektua izugarri handitu da, beraz. Horrela, inguruko geografia edo uraren zikloa bezalako gaiak landu dituzte aurreko urteetan; eta, aurten, kilometro zero kontzeptuarekin zerikusia dutenak.

Hiru alorretan banatu dute aurtengo lana: baratzea, elikagai-hondakinen kudeaketa eta biodibertsitatea eta toki degradatuen berreskuratzea.

Luis Lizarribar, Larraitzarko irakaslea: "Hondakinen kudeaketa eta kilometro zero garrantzitsua da gizarte honetan. Eta ikastetxe batean ere pausu hori eman behar genuela ikusten genuen".

Eskola baratzeari, bultzada

Aurretik ere baratzea bazuten ikastetxean. Baina, eraikuntza berria egin zutenean eta Covid-19aren izurritearekin, utzi zuten. Ikasleen familien laguntzarekin berriz martxan jartzea eta handitzea lortu dute. Luis Lizarribar: "Arratsalde batean hainbat familia bildu eta denon artean txukun jarri zuten eta bost baratze-alor gehiago jarri zituzten". Talde lana sustatzen duen ekimena dela uste du, Lizarribar irakasleak: "batzuek edo gehienek etxean badute, baina

hemen beste modu batean lantzen da. Hemen erakutsi nahi dieguna da beraien artean lanean aritzea, elkarlanean. Gainera, emaitza duen lan bat da, poliki-poliki ikusten dute nola hazten den landarea, zaindu behar dela, eta baratzea bezalaxe beste edozein gauzatan pausu berdintsuak jarraitu beharko dituztela: zaindu eta denon zainketaarekin aurrera aterako direla".

Etorkizunean baratzearen lan talde bat osatu nahi dute, urte osoan funtzionatu dezan: "Baratzearen inguruko proiektu horretan ez dezala parte hartu bakarrik ikastetxeak (irakasleak eta ikasleak), familiek ere parte hartu dezatela eta familiez aparte beste bailarako edozein estamentu, esate baterako, jubilatuen batzordea, bertako kide batzuekin batzuetan lan egin izan baitugu. Posible izango balitz proiektu bat sortzea horri finkotasun gehiago emateko. Bestetik, baratzeak uzta gehiena oporretako bi hilabeteetan jaso beharko litzateke, eta gaur modu desegoki batean galtzen da".

Sustraiak proiektuak, jarraipeneko eguneroko proiektua izateaz gain, ekimen puntualak antolatzeko aukera ere ematen du. Baratzean, hura lantzeaz gain, hainbat tailer egin dituzte: txorimaloak egiteko tailerra edo Garbiñe Larrearekin izandako sendabelarren tailerra, esate baterako.





Jantokiko langileen ekarpena

Elikagai-hondakinen kudeaketan jantokiko langileen ekarpena ezinbestekoa da. Martxoaren 6tik 31ra soberan geratutako janari kantitatea zenbatu zuten eta, neurketen emaitzen arabera, batez beste lehen platereko 4,5 ontzi (2 l/ontzi) eta bigarren platereko bi erretilu baino gehiago sobratzen ziren. Soberako janari hori ezin zen aprobetxatu tenperatura-katea galdu zuelako, janari guztia ikasleen eskura jartzen baitzen mahaietan banatutako erretiluetan. Soberan zegoen janaria osasun arriskurik gabe aprobetxatzeko, janariaren banaketa aldatu da. 2023ko irailetik aurrera, jantokiko langileek banatzen dute janaria zuzenean ikasleen plateretan. Gainera, inguruko gizarte zerbitzuekin, soberako janari hori, kalitatezkoa eta segurua, aprobetxatzeko aukera aztertzen ari dira.

Luis Lizarribar, ikastetxeko irakaslea: "Aspaldiko kezka bat da, janari asko soberan dagoela eta janaria prestatzearekin hondakinak sortzen direla. Horiekin zer egin da kezketako bat. Prestaketako hondakinekin erreza da, konpost bezala erabili daitezkeelako. Baina besteekin, janaria zerbitzatu ondoren gelditzen den janariarekin, adibidez, badira pausu batzuk ezin direnak ondo bideratu. Gaur egun, mankomunitatearen laguntzarekin, beste konpost sistema bat jarri dute. Lauzpabost kajoikoa da, eta begiraleek (haien lanari gehitu zaien lana izan da, eskertzekoa) hartzen dute janari hondakin guztia, bai prestaketakoa eta baita soberan gelditu dena eta botatzen dute hondakin ontzi horietara, beren prozesua egiteko. Mankomunitatetik etortzen da pertsona bat, astero, ikusten du nola dagoen eta mugitu behar bada mugitzen du".

Janaria baloratzearekin eta aprobetxatzearekin zerikusia duen guztian sentsibilizatzea funtsezkoa da. Horrela, eta ikasgelako beste jarduera batzuekin batera, aurtengo ekainean Mamadu, Paris 365 jantoki sozialaren erabiltzaile batekin elkartruke bat egin zen, eta hark lehen pertsona kontatu zituen bere bizipenak.

Biodibertsitatea, hirugarren zutabea

Aipatu bezala, biodibertsitateaz eta toki degradatuen berreskuratzearen garrantziaz ere aritu dira aurtengo proiektuan. Hainbat ekimen eta tailer antolatu dituzte, eta familiek ere parte hartu dute. Hegaztiei eraztunak jartzeko irtenaldi bat egin zen, besteak beste, non 27 txoriri eraztuna jarri zitzairen, eta Europako hegaztien datu basean erregistratuko dira. Ondoren, ugaztunen aztarnak ezagutzeko tailerra ere antolatu zen. Biak Ornilan enpresako Gabi Berasategiren eskutik.

"Gure ikastetxea inguru pribilegiatuan dago, Natura 2000 Sarearen barruan (Ultzamako eta Basaburuko hariztiak). Inguruan dugun biodibertsitatea oharkabean pasatzen da askotan, eta hura begiratzeak merezi du, baloratzeko eta zaintzeko. Gure ingurunea adituen eskutik ezagutzea pribilegio bat da".

Gure ikastetxea inguru pribilegiatuan dago

Orain, hausnarketa unea

la hamarkada bat daramate Sustraiak proiektuarekin Larraintzarko Ikastetxean, eta, orain, hausnarketa unea iritsi zaie. Luis Lizarribar: "Zortzi edo bederatzire urte pasa dira hasi ginenetik. Xumexume hasi ginen, maila eta etapa batzuetatik hasi ginelako eta ondoren ia ikastetxe osoa sartu delako, ordutik hiru bat urte daramazkigu. Bikain izaten ari da, baina batzuetan zalantzak sartzen dira ea egiten ari garenekin zer emaitza dugun".

Ondorioz, hausnarketarako tarte bat hartu nahi dute hemendik aurrera nola jarraitu nahi duten erabakitzeko: "Hausnartzeko une batera iritsi gara. Erabaki behar dugu proiektu handi bat izaten jarraitu nahi dugun, ikasturte osoa hartzen duena eta lanketa pila bat eskatzen duena. Edo txikiago izan daitekeena izatera pasako garen, astebete puntual bat hartuz, ekintza edo toki baten inguruko gauzak egiteko. Zalantzan gaude. Irakasleen iritzia jaso ondoren erabakiko da. Betiere kontuan izanda baratzearen eta hondakinen kudeaketa, horiek jarraituko dutela gizarte honetan beharrezkoak ditugulako".





Lizasoko bestak



Lizasoko bestak



Lizasoko bestak



Lizasoko bestak



Erripako festak, zozketako eta bingoko saridunak



Auzako herri kiroltako partaideak



Auzan, sokatiran




Indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egunarengatik, elkarretaratzea, Gizarte Zerbitzuen bulegoaren parean



Auzan, sokatiran



Ziaurrizko bestak



Iraizotzen zinema-aretoa

1958an inauguratu zuten Zinema-aretoa Iraizotzen. Zinema-aretoa egin zuenari Fausto Ezkurra Rolin zitzaion eta Ultzamari maitasun agerikoa zion, eta batez ere Iraizotzi. Bere aurrekoak Iraizozko **Errekaldekoak** zituen.

Ttiki-ttikitarik Iraizotzen pasatzen zituen udak bere familiarekin batera eta adiskidantza handiak egin zituen, gerora ere mantenduko zituenak. Hau dela-eta, Ultzamarako proiektu kulturalen bat egitea buruan sartu zitzaion eta zinema-areto bat egitea erabaki zuen.

Fausto Ezkurra Bilbon bizi izan zen, Deustuko Unibertsitateko ingeles eta aleman itzultzaile.

Zinema hau errepide bazterrean egin zuen, Iraizotzik Alkotz aldera goazela, ezkerreko aldean, **Martixeneko** baratzearen kontra.

Teilatu hormigoizkoa zuen, borobil samarra eta hori eraikitzeo Iraizozko zurginek zurezko molde batzuk egin behar izan zituzten, haietan hormigoi egin berria botatzeko. Horrelako teilatu arraro bat egiteak eta hormigoizkoa gainera, jakin-mina sortu zuen herrian eta herritar gehientsuenak hurbildu ziren eraikitze molde berri hau ikustera.

Zinema izateaz at, bazuen lorategia eta bertan harrizko iturri bat; lehen solairuan terraza bat, bere eguzkitakoekin (sombrillas); eta azkenik, sotoan, jatetxea eta barra.

Zinema-aretoa martxan jartzeko aginduak

Lanak bukatu eta martxan jarri behar zen eta horretarako –Bilbo urruti izaki- idatziz eman zizkien aginduak **Aritzenekoei**, bertakoekin harreman estua baitzuen aspalditik.

Eta ez ziren agindu arinak hala fede!


–Bilbotik bi zerbitzari igorriko zituen: Delfina Perez (Delfi) eta Milagros Garcia (Mili) barra eta jatetxea eramanen zutenak, eta herrian biziko zirenak.

–Sukaldekolanak Francisca Oiartzun, **Apezeneko Maistartokikoaren** esku izanen ziren.

Idatzian, azaldu ere azaltzen zuen nor izanen zen diruzaina, Gregorio Iraizotz aukeratu zuen horretarako.

Hona hemen zinema-aretoa.
1957ko abuztuko da.





Gortinak eta mahai-zapiak Encarna Iraizotzek eginen zituen. Bai Gregorio eta bai Encarna **Aritzeneko** seme-alabak ziren.

Pelikulen botatzea

Pelikulak botatzeko ardurua Angel Garcia, Minaren etxekoari utzi zion. Eta zentsura, berriz, Angel honek berak eta herriko apezka zen Ricardo Askoberetaren gain izanen zen.

Zinema ikustera Iraizotza jendea

Hura ezagutu zuten irazioztarrek ongi gogoan dute nola mozten zituzten musu eta ferekak agertzen ziren eszenak.

Sarrerek 3 pezta. balio zuten; eta dirua zen gero!

Oraindik ere zenbaitzuk oroitzen dira botatzen zituzten zenbait pelikulez: *Un grito en el pantano* *El zorro*, *El prisionero de Zenda*...

Pelikulez gain, teatro lanak ere antzeztu ziren, Ultzamako gazteek jokatuak eta herriko maistra zen Joaquina Beuntza gerendiaindarrak

zuzenduak. Lan horietako baten izena ere gogoan dute: "Las muñequitas"

Magia emanaldiak ere izan ziren Jamalandrudi zeritzanak emanak; oso-oso ospetsua eta maitatua zen mago hau.

Zinema-aretoa, asteburuetan irekitzen zuten baina ez zuen askorik iraun, aurki hamar urte baino gutxiago izanen zen. Argi dago negozio honek izanen zituen sarrerak ez zirela aski izanen gastuen ordaintzeko eta urtetik urtera zorrak handituz joanen ziren azkenean hertsia behar izan artio.

Ibarreko herri guzietatik etortzen zen jendea, baina batez ere hurbileko herrietatik, ez baitugu atzendu behar garai hartan autorik ez zela izaten eta joan-etorria oinez egin beharra zegoela.

Jendeak hala ere gogoan du

Gaurko egunean ez da deus gelditzen, pareta zaharren bat ez bada; eta zinemaren oroitzapena,

berriz, pelikula eta ikuskizunak ikustera eta disfrutatzen iritsi ziren pertsonen gogoan. Honezkero bakantzen hasiak, aspaldi xamarreko kontuak izaki.



Lourdes Iraizotz

Hiztegia

Aretoa: salon; local

Errepidea: carretera

Eraiki: construir

Sotoa: sotano

Ardura: kasu honetan, responsabilidad

Fereka: caricia

Antzeztu: representar

Gazteek jokatuak=gazteek antzeztuak

Aurki: probablemente. Gure alderdi zabalean hala da (Hiztegian ez dator hitz honen adiera hau)



▲ Hona hemen 1958ko irailean zinemako terrazan ateratakoa. Goiti, hor ditugu Bilboko bi zerbitzariak albo banatara eta erdian, Javier Etxandi, **Artxaia** etxekoa eta ondoan Encarna Iraizotz, **Aritzenekoa**. Eseriak daudenak: Pako Irigoien, **Etxeberrikoa**, jertse beltza duena, eta eskuinekoena, Florencio Villabona, **Ramorenako** etxekoa, eskuz eguzkitakoari heltzen diona. Erdiko nekatoa, Conchita Oiartzun, ama Artxaia etxekoa zuena. Eta atorra zuriz dagoena ezezaguna zaigu.

Aizarozko Ostatua

Urtebete egin berri du Xabi Goñik Aizarozko ostatuan. Inguruko herrietan zenbait ostaturen aukerak aztertzen aritu ondoren, Aizarozkoa suertatu zitzaien, eta herritarren partetik izan duten erantzunarekin oso pozik eta eskertuta dago. Ostalaritzarekin eta eskualdearekin lehenagotik zuen harremanaz galdetu diogu atarrabiarrari. Berarekin batera, Arantza Prieto 'Negra' eta Olga Rada ari dira lanean.

Nondik nora sortu zitzaizun Aizarozko ostatuaren kudeaketa hartzeko aukera?

Duela urtebete hasi ginen justu, iazko urriaren 28an. Bizkaian bizi izan naiz ni azken urteetan, baina Nafarroara bueltatzeko gogoz nongoen. Arte Ederrak ikastera joan nintzen hara, eta han ezagutu nuen 'Negra', Arantza. Zazpi kaleetan egiten zuen lan berak, ostatu batean, eta harekin hasi nintzen ni ere lanean. Baina, pandemiarekin ostatua itxi behar izan zuen, eta gerora, Nafarroara etorri nintzen ni, eta bera ere bai. Ostatu batean lan egin nahi zuen, eta hor hasi ginen aukerak begiratzen: Eltzaburukoa, Igoakoa, Amaiurkoa eta Aizarozkoa zeuden. Proiektuak aurkeztu genituen, eta azkenean, Aizarotzen eman ziguten aukera.

Ostalaritzan lehenago arituak zaretela aipatu duzu. Non ibili zarete?

Gasteizenasinintzenniostalaritzan, gaztea nintzela hara ikastera joan nintzenez. Asteburuetan egiten nuen lan, sos batzuk egiteko. Bizkaia aldera joan nintzenez ere honetan aritu nintzen. 'Negrak' badu esperientzia gehiago, dena den. Berak 30 bat urte daramatza ostalaritzan. Ni Atarrabiakoa naiz, 'Negra' bizkaitarra, eta Olga, berriz, Txantreakoa.

Harremanik bazenuen lehenago eskualde honekin?

Nik amona Gartzarongoa nuen. Egia da, hala ere, urte asko zirela ez nintzela hemendik ibiltzen. Iruñean dantza taldean aritzen ginenean bai, mugitzen ginen hemendik, Jauntsarastik, Itsasotik... baina urte asko zen ez nintzela hona etortzen.

Aizarotzen bertan bizi zarete, edo joan-etorrian zabiltzate?

Hirurok bertan bizi gara, bai. Bizkaian Zeberion bizi nintzen ni, herri txikia da, eta hona itzuli nintzenez, Atarrabia handiegi gelditzen zitzaidan. Herri txiki batera joan nahi nuela argi nuen, eta horrela sortu zen hemengoa. Joan-etorrian ibiltzea ez da aukera bat niretzat.

Zer nolako harrera izan duzue herritarren partetik?

Harrera oso ona izan dugu, oso pozik gaude. Pentsatzen dut jendea pozik egonen dela horrelako herri txikietan ostatua itxita izatea ez baita inoiz aukera ona. Baina, bai, harrera ederra izan dugu eta oso eskertuta gaude.

ESKAINITZA

Eskaintza: astez, eguneko menua (asteazkenetik ostiralera). Asteburuetan, asteburuko menua. Gauez, afariak: bokatak, hanburgesak, entsaladak eta plater bereziak

Eskaintza kulturala: "Kultur giroa sortzea ere bada gure asmoa. Kontzertuak, antzerkia, ipuin kontalariak... pixkanaka"



Arantza, Olga eta Xabi, Aizarozko ostatuan

Astotto honek ez du deusetarako balio

Nexkatoa behor gainean, bi aldetara zangoak, bizkor, trebe eta ausart.

-Nor zara zu?

-Ni, **Juanthro!** Ni, **Juanthro** naiz.

Behor handi bat zamalkatzen Zarranzko nexkattoa. Ausart eta begirada erne! Ez da lotsa, ez da herabe! Aitak erakutsia izanen du bera **Juanthro** dela. **Juantroneko** alaba zaharrena, hain zuzen. Bost ahizpetan zaharrena.

Bai, badaki nor den, badaki nongoa den, eta lotsarik gabe dio dioena: **Juanthro** naiz!

Eta hala behar genuke gu ere. Lotsa gabe, ausart, nor garen azaldu beti eta nonahi:

-Ni euskalduna naiz. Ni naparra naiz.

-Nor? Nongoa?

-Euskalduna, Euskal Herrikoa!

Hori beharko lukete jakin gure eskola haurrek. Badakite?

Jakinen zuten agian garai batekoek, D ereduan ari zirenean. Behorra adinakorik ez, baina gutxienez mandoa genuenean, mando herbal hura zamalkatzen zutenean. Orain, mando zahar hura arbuiatu eta asto

ttiki bat ekarri digute. Asto ttiki eta mengel bat, ile luze, iduriz, goxoa. Haur ttikittoendako modukoa. Goxoa? Bai, goxoa iduriz, baina ez hasi zamalkatzen, bizkarrezurreko zorrotzasunak zure ixtapea gozoa jarriko dizu eta.

Zaldi bizkor sendoa behar, urrun joateko eta asto ttiki iletsu bat, inora joateko gauza ez dena ekarri digute erregaloz. Mando hortz maskel hura kendu, oraindik bide puxka bat egiteko bederen balio zuen hura bazter utzi, eta asto bizkar zorrotz engainagarria ekarri digute.

-Ni Juanthro naiz! Ni Juanthro naiz!

Zaldi edo behor bizkor bat ekarri artean ez digute mando hortz maskel eta ezpainetatik herdea zerion hura itzuliko?

Ardo txar urardotua; alkoholik gabeko ardoa? Hori digute saldu oraingoan eskoletan, ez indar eta ez deus, euskara galtzeko modukoa, hori bai. Ekar dezatela ardo nafar gorri bizia!



Txurdan

Hiztegia

Zamalkatu: Zaldiz ibili, cabalgar

Herabe: Uzkur (timido)

Maskela: Maskala izanen da. Hemen **hortz maskela** ibiltzen da hortz bat edo gehiago falta zaionari.

Herbala: ahula

Arbuiatu: despreciar

Mengela: esmirriado

Ixtapea: iztarrea



▲ Behorra



Basaburuko

udaletxea (I)

Ez zen berehalakoan egin

Kontzejuek izaten zuten beren Herriko-etxea, ostatu eta guzi. Herri gehienek; ez guziek hala ere. Baina Udalerriek askotan ez, batez ere ibarretan. Adibidez, Basaburuak, Imotzek eta Atetzek ez zuten udaletxerik.

Eta Basaburuan beti egin beharretan izaten ziren, baina ez zuten erraza izan. Azken karlista gerra (1873-1876) pasa berria, diruz estu zebiltzan; eta nola egin udaletxea? Nahia bazen, baina alde batetik diruz larri eta, bestetik, non egin? Lur mutur bat ere behar zen. Eta hau ez zen arazorik errazena izan.

Non egin

Ordura artio udala Jauntsaratsen izaten zen, **Martikonean**. Bertan gela bat izaten zuten. Liburu eta paper gutxi batzuk artxioban, beraz, toki gehiagorik behar ez. Eta okerrago zena, gerrakoan, azken karlista gerran, udaleko paper guziak erre egin zituzten. Nork

erre zuen artxiboa? Karlistek edo liberalek? Ez dugu arakatu, baina guk uste dugu liberalen kontua izanen zela txikizio zikin hori. Guk uste, baina askotan ustea ustel izaten baita, zehatz ikasi beharko dugu, nork, nola eta zergatik. Oraingoz, bego horrela.

Jauntsarasko **Martikonean** izaten bazen udaletxea, normalena Jauntsaratsen egitea zen, lurra erosi eta bertan egitea. Hori zen normalena, baina bazterrak nahasi ziren. Jauntsarastarrek nahi ez, komunal pittin bat saldu nahi ez.

1891-1893. Nor ziren udalean?

1891ko uztailearen lehenean bildu ziren udal zaharra eta berria. Ordua: ohitura zen bezala,

atsaldeko bi orduetan (kontutan har eguerdia 12etan izaten zela eta, beraz, atsaldeko ordu biak ez zen tenore txarra batzarra egiteko)

Goitik agindutakoa izaten zen udala noiz eratu, eta kasu honetan, uztailearen lehena, asteazkena. Horrelako kasuak kenduta, batzarrak beti igandez egiten ziren.

Hauteskundeak bi urtetik behin izaten ziren, baina zinegotzien erdiak besterik ez ziren berritzen, hortaz, zinegotzi bakoitzaren aginte denbora lau urtekoa izaten zen.

1891. urte honetan, hona hemen udalean ageri direnak. Zein etxetakoak ziren kasuren batean ezin asmatuz ibili bagara ere, uste dut, denak zuzen jarri ditugula

DEITURA-IZENAK	KARGUA	ETXEA
Arangoa Saldias Fermín	Alkatea	Berueteko Garaikoa
Iriarte Apeztegia, Miguel	1. Tenientea	Udabeko Borbonea .
Villanueva Zarrantz, Manuel	2. Tenientea	Jauntsarasko Apeztegia
Telletxea Arano, Enrique	Kontzejala. Sindikoa	Berueteko Iturriaga
Moreno Astitz, Juan Cruz	Kontzejala	Berueteko Etxeberria
Erbiti Azpirotz, Francisco	Kontzejala	Arrarasko Kastenea
Etxarri Otxotorena, Marcos	Kontzejala	Berueteko Txarbonea
Jaunarena Itxaso, Fermín	Kontzejala	Gartzarongo Martxonea
Ilarregi Ainzaoin, José (*)	Kontzejala	Itsasoko Errandonea



▲ *Jauntsarats. Eskuinean, Martikonea*

Urak nahasi xamar zetozen dirudienez: hasteko eta behin, Jose Ilarregik ez zuen kargua hartu nahi izan, Nafarroako Probintziako Batzordeari baimena eskatu zion, hirurogei urtez gorakoa zelakoz (61 urte zituen) Honek ere zerbait sumatuko zuen!

Gero alkatea aukeratzekoan, hiru hautagai izan zituzten, Beruete **Garaikoko** eta **Etxeberriko** nagusiak, Fermin Arangoa eta Juan Cruz Moreno eta Jauntsarasko **Apeztegiko** Manuel Villanueva. Aurreneko biak hiruna boto atera zituzten eta jauntsarastarrak bat. Boto bat zurian izan zen.

Bigarrenez botoa eman behar izan zuten eta bigarren txanda honetarako talde batek hautagaia aldatu zuen, Udabeko **Borboneko** (Juan) Miguel Iriarte jarri baitzuen, baina ez zuten asmatu, hor, lehen

txandan, zurian eman zuena **Garaikoren** alde atera baitzen. Beraz, alkate berria Fermin Arangoa Saldias atera zen. Aipatu gabe ezin utzi aurreko alkatea, Francisco Erbiti Azpirotz, berriaren koinatua zela.

Agerian dago urak uherrak zetozela.

Udaletxea egin behar dugu

Udaletxea egitekotan ziren, baina baziren egin nahi ez zutenak ere. Gainera, non egin? Nola egin? Zer dirurekin? Bai, baten Udaletxea egin nahi ez zuenik, dudarik gabe. Eta lehen oztopo horri kontra egiteko edo, Gobernadore Zibilarengana jo zuenik ere izan zen; eta horrela Iruñetik agindua jaso zuen udalak 1893ko maiatzaren 18ko idatzi baten bitartez:

Egin ezazue Udaletxea behar diren bulego eta gela guziekin.

Eta udala eta veintena edo hogeikoa bildu zituen Alkateak 1893ko maiatzaren 28an, igandea, atsaldeko bi orduetan.

Eta aho batez onartu zuten udaletxea egitea.

Hona gainerako erabakiak:

-Neurriak: 40 napar-oin zabal eta 48 luze, pareta barnetik neurtuz.

-Jauntsarasko plazan egitea, **Garaikoetxeko** larraina eta errepedearen artean, **Karakoetxezarraren** etxe aurrean. Eta hegoalde **Apeztegiko** baratzea zuela.

-Etxeak, behe planta, bi pisu eta sabaia izan behar zuen.

-Bi ateko etxea izanen zen.

-Baimena Diputazioari eskatu dirua zorretan hartzeko.

-Alkateari baimena eman Arkitekto bat opatzeko, erabakitako etxe mota egiteko.

Oharra: **Karakoetxezarra** orain **Xaraxolaren** etxea deitzen dugun hori da.

(Hurrengoan segituko dugu)



Txurdan

Hiztegia

Bego: egon dedila

Tenorea: momento (Hemen ere beti ibili izan da)

Eratu: organizar (Hemengo era bada)

Uherra: turbio, revuelto

Veintena. Udalak 9 lagunez osatua zegoen. Eta Veintena 20 aberatsenez.

Napar-oina: pie navarro (neurri mota bat)



▲ *Basaburua, Etxalekuko Antxuetaginetik, Iriber eta Ernaizu mendi gorak ageri direla.*

Txori kabi bila abila

Udaben bi neskatxei jarritako bertsoak atera dira orain berriki Pulunpen, Ekaitz Santaziliak eta Ricardo Urritzolak Nafarroako Artxibo Handian topatutakoak. 1831koak dira.

(Ikus, 233. eta 234. zenbakiak)

Lehen bertso sailekoak **Etxeberriko** Juana Mari Aldatz Huarri atera zizkioten, 19 urteko neskatxa gazte enamoraturi.

Juana Marik, herrian hargingoa ikasten ari zen Juan Joxe delako batekin endredatu eta haur bat izan zuen dirudienez. Bertsoek honela diote: 10.ak, emaginaren eske mandatua bidaltzen eta 13.ak, berriz, *Andregai eder hura urak edaten duzu*.

Beraz, haurduz gelditu eta herritik kanpo ere egon zen aldi batean urak hartzen bainuetxe batean. Gurasoek igorriko zuten sabel handiturik ikus ez zezaten.

Emaginaren eske mandatuak, baina, guk ez dugu Udaben Juana Mariren haurraren bataiorik topatu. Beste norabait joana izanen zen.

Eta, nor genuen Juan Joxe?

Eta Juan Joxeren atzetik hasi eta Aldatzen topatu dugu: Juan Joxe Urritza Lazkano, izen eta deitura guziekin. Berueten jaioa eta Aldatza joana bere guraso eta senideekin (Tokiren batean jartzen du Berueten jaioa eta besteren batean Aldatzen jaioa)

Gertaera hauen guzien garaian Udabera etorria hargin-maisua zen Casimiro Beramendi Madotzengana, ofizioa ikastera.

Juan Joxek hargingoa ikasiko zuen Udaben, seguru, baina txori kabi bilatzen abilagoa zen dirudienez.

Hara, 1835eko apirilaren 11n nexkato bat izan zuen Mugioko Fermina Iriarte Zubietarekin eta oraingoan behintzat ongi portatu zen, deitura eman baitzion (Fermina, 1838an, beste batekin ezkonduko zen)

Nonbait, Juan Joxe ez zen atzentzen Udabeko Juana Mariz eta hau gutxiago Juan Joxez. Horrela, elkarrengandik bereiz esten ez eta, 1936ko abuztuaren 25ean ezkondu ziren goizean-goiz eta aste gorrian, ohitura zen bezala, Udabeko elizan.



Udabeko herria ▲

Bizi, Aldatzen bizitu ziren, eta hazi ez dakit baina sei umeren gurasoak izan zirela bai.

Historiako beste pertsonaia batzuk

-Alkatea edo errejidorea: Miguel Aginaga, Beramendiko **Bengoetxeko** nagusia.

-Gauetz, errondan, bertso kantari ibili ziren guziak Udabekoak ziren, Udabeko errotako seme bat barne. Beramendikorik ez da aipatzen. Zenbat familia izanen ziren ba Udaben? Hamabi baino gehiago ez aurki. Ez zuten lotsa handirik dirudienez. Beldurrik ere ez. Horrela ziren ohiturak.

Nor eta nongoa ote zen bertsoak paperean paratu zituena?

Ez jakin, baina ageri diren hitz eta esamoldeekin, dudarik ez dugu ez zela ez Larraungoa eta ez Basaburukoa. Iparralderagokoa dudarik gabe. Baztangoa? Baliteke. Pulunpe honetan behintzat ez dugu tokirik egin azterketako xehetasun gehiago sartzeko.

Hiztegia

• **Kabia:** batuan habia idazten da.

• **Hargingoa:** cantería

• **Etsi, esten:** resignarse



Ongi etorri, Markel!

Esan Erran Irratiaren 25. urteurrena zela eta, Eritzen, urriaren 21ean egin genituen ekitaldien barnean **herri kirola** sartu genuen eta zehazki, aizkora.

Manolo Kañamares aizkolaria genuen plaza prestatzen. Plaza prestatzen, ondoren ari behar zuten bi aizkolariei lanak errazten. Manolok, plazetan asko ibilitakoak, orain aizkolaria prestatzen ditu: Oier semea eta abar. Hau Euskal Herriko txapelketetan, herrietako erakustaldietan-eta ikusten dugu maiz.

Eritzen, Oierrek lan polita egin zuen, azaroaren lehenean, Navarra Arenan, jokatu den Euskal Herriko lehen mailako Txapelketarako, proba bezala edo,

2 hirurogei ontzako eta bi kana erdiko. Indartsu ikusi nuen nik.

Baina, honen aurretik, gaztetxo bat ikus genuen trunko gainean zutik. Honi, lanera atera baino lehen egin nion elkarrizketa, aukera paregabea baita lehen aldiz plazara ateratzen den mutil ilusionatu bat elkarrizketatzea.

Beuntzako **Marteneko** semea, Markel Iturralde Egozkue, 15 urtekoa.

-Markel noiz hasi hintzen aizkora?

-Hasi berri-berria naiz. Orain bi hilabete.

-Eta etxean probatu huen aizkora?

-Gutxi, gutxi, zerbait bai.

-Eta aitzurra probatu duk? Baratzean badakik?

-Aitzurra gehiago. Baratzean bai, baratzean bai. Aitatzik erakutsita.

-Eta aziendekin eta badakik zerbait?

-Bai, bai. Baditugu behiak, esnetakoak.

-Jakina, traktorea ibiltzen ere ederki jakinen duk.

-Bai, bai, badakit, traktorea, behiak...

-Noiz hasi hintzen traktorearekin? Sei urtetan, 8tan, 10etan?

-Beranduago, beranduago.

-Ja, ja!

Geroago kontatu digu gurasoei laguntzen aritzen dela, gutxi edo asko, egunero.

-Ardiak ere baditugu, haragitakoak. Eta horiekin ere aritzen naiz - azaldu digu.

Makinak gustatzen zaizkio Markeli. Baina azienda ere bai eta antzematen zaio. Eta ezagutzen omen ditu ia den-denak.

Ez du eskola txarra aizkolaria izateko. Eskumuturrak-eta, indartzeko. Eta borondatea bizkortzeko. Ez, ez, Markelek etorkizun ona du.

Gurekin egon ondoren plazara atera da. Lehen aldia du, urduri xamar lehenik, gero lasaia.

Eta ederki ebaki du 50 ontzako enborra (Kana erdikoak 54 ontzako ditu) Ederki ebaki du, aztatuz ongi, golpe handiak emanez, beharbada handixkoak. Aizkolaria baten bataioa da ikusi duguna. Gustatu zait eta gustatu zaigu. Eta batez ere kontatu digunarengatik: aizkora eta lana, lana eta aizkora. Ez da bikote txarra.

la izerditu ere ez da egin. Ongi etorri Markel, berriz ere hi ikusteko irrikan gelditu nauk.

Hiztegia

Aztatu: acertar bien. Hemen ibiltzen dugu, baina hiztegian (oraindik) ez dator.

Irrika: nahi bizkorra.



Markel Iturralde Egozkue ▲



Pobreen proteinaren aberastasunak

Elikaduraren inguruko hilabete honetako kolaborazioan, lekaleak izan dira protagonista. Laia Llopek azpimarratu duenez, urteetan 'pobreen' proteina iturri bezala ezagutu dira lekaleak, eta, agian horregatik, zertxobait baztertuak gelditu dira azken urteotan. Propietate oso interesgarriak dituzte, ordea, eta berriz ere 'modan' jarri nahiko lituzte nutrizionistak

Babarrunak, txitxirioak, dilistak, ilarrak... gizartean oinarritzko elikagai izan dira urte askoan lekaleak inguru hauetan. Duela hilabete pasatxo bildu dira, baina urte osoan zehar kontsumitzeko moduan izaten ditugu. Llopek nabarmendu duenez, landareen munduan proteina gehien dituen elikagaietako bat dira lekaleak, fruitu lehorrekin batera. "Normalean proteina haragiarekin, arrainarekin, arrautzekin edo esnearekin lotzen dugu, baina lekaleek ere beste horiek adina proteina dituzte".

Proteina iturri garrantzitsu izateaz gain, bestelako onurak ere badituzte lekaleek. Besteak beste, minbiziaren prebentziorako onurak dakartzate, fibra asko dute eta gure mikrobiotarako oso ongi datoz, eta mineral eta bitamina ugari dituzte. Nahikoa arrazoi, gure elikaduran ohikotasunez elikagai mota hauek xertatzen hasteko.

Tripan kalterik ez egiteko gakoak

Lekaleek badute alde ez hain on bat, dena dela, tripetatik justu ibiltzen den jende askorentzat. "Askori haizeak sortzen zaizkio sabelean lekaleak jan eta gero, edo kalte egiten dio... baina, garrantzitsua da jakitea sukaldatzeko moduan dagoela gakoa", azaldu du Llopek. Alegia, badagoela soluziorik. Izan ere, lekaleak haziak dira, eta haziak, hasiera batean behintzat, bertatik beste landare bat sortzeko daude prestatuak, udaberriari berriz prozesua hasteko. Horretarako, baina, babesle berezi batzuk izaten dituzte azalean, eta normalean, sustantzia horiek izaten dira kalte egiten dituztenak.

"Haziak babesteko dituzten sustantzia horiek izan ohi dira sabelean kalte egiten dituztenak, baina, badira zenbat prozesu babesle horiek kentzeko, lekaleen

“ Lekaleek sabelean kalterik ez egiteko kominoa, erramua, mihilua edo antzeko osagaiak gehitzea proposatu digu ”

propietateak mantenduz", azaldu du. Prozesu horiek ahalbidetuko digute lekaleak kontsumitzea, kalte eginen ote diguten beldurrak kenduta.

Uretan beratzen uztea

Babarrun eta txitxirioekin badugu gau batez behintzat beratzen uzteko ohitura, baina denbora gehiagoz uztea da Llopek proposatzen diguna, eta lekale guztiekin egitea, txiki nahiz handi. "Normalean 12 bat orduz jartzen ditugu beratzen, ezta? Gauean utzi eta hurrengo eguerdian kontsumitu, adibidez. Bada, hobe da gutxienez 24 orduz uztea uretan beratzen, noizean behin ura aldatuz", argitu du.

Beste aukera bat litzateke, egun bat baino gehiago uztea lekaleak uretan beratzen. Fermentazio edo hartxidura prozesu bat abian jarriko litzateke, kasu horretan. "Kasu horretan, fermentazio prozesua hasten denean, lekaleek aurretik aipatu ditugun sustantzia 'babesle' horiek galtzen dituzte". Fermentazio edo hartxidura prozesu hori bi



Elikadurari eta osasunari lotutako kolaborazioa egiten digu hilero Laia Llop aizaroztarrak



“Lekaleak uretan 24 orduz gutxienez beratzen uztea gomendatu du Llopek”

modutan egin daiteke: modu naturalean, alegia, lekalearen azalean dauden bakterioekin, beste ezer gehitu beharrik gabe; edo, urari fermentazioa errazteko zerbait gehituz, adibidez, ozipina.

Azkenik, germinazioarena da beste auker bat. “Uretan beratzen luze utzita, lekaleak ernamuintzen — germinatzen— hasiko dira, bere jaiotzeko prozesuan. Momentu horretan, lekaleak bere babesleak ere galtzen ditu, eta horrela asko errazten da gure digestioa”, gehitu du. Germinatuen kasuan, zaporea zertxobait aldatzen dela azaldu du Llopek, baina uretan beratzen uzteko denbora luzatzearekin elikagaien zapora eta testurak berdina izaten jarraitzen duela dio.

Digestioa laguntzeko osagaiak gehitzea

Sabelean kalterik ez eragiteko beste gako bat digestioa errazteko propietateak dituzten osagaiak gehitzea da. Indian, esaterako, dilistak eta kominoa beti elkarrekin doaz, kominoa digestiboa delako. Gurean, inguruand itugun hainbat belarrek oso ongi funtzionatzen dutela azaldu du Llopek. “Erramua, esaterako, oso digestibo ona da, eta baita anisaren familiako belarrak ere: mihilua, anisa bera...”. Algak ere onuragarriak dira digestiorako,

eta horiek ere erabil daitezkeela dio nutrizionistak; kombu alga kasu.

Egosterakoan, arau bakarra jarri du aizaroztarrak: ongi egostea, denbora luzez. “Dilistak edo lekale txikiak, gutxienez, ordu batez, eta handiagoak direnak, berriz, bi ordu inguru behintzat bai, su baxuan”. Behin egosita daudela, azidoak diren edo fermentatutako elikagaiekin laguntzeak ere digestioan laguntzen duela azaldu du. Zergatik uste duzue, bada, jan izan direla hemen babarruank beti gindilekin lagunduta?



▲ Dilista germinatuak



Zer aurkitu dezakegu webgunean?

Egun Ero irratsaioko kolaborazio berri gehiago ezagutzeko aukera izan dugu, webgunean, azken hilabetean, Esan Erran irratiako bestelako podkastern artean. Gainera, azken albisteak ere, eguneratuta, aurkitu ditzakegu.

Podkastern artean, **Kataren musika txokoa** estreinatu dugu eta baita **Badena eta eztena. Gure historiaren errepaso zorrotza** ere. Mimosa bulegoaren arduraduna den Beramendiko Katak eginen digu musikaren errepasoa aurtien.

Kataren musika txokoa entzuteko



Bestetik, bi astean behin, **Egun Ero Kantuz** saio bereziarekin jarraitzen dugu. Inguruko herritarrak ezagutzen ari gara haien kanta kuttunen bitartez. Azkenekoan, Atetzera joan gara, Beuntzara, hain zuzen ere.

Egun Ero Kantuz. Maitane Iturralde Egozkue




Aurreko hilabetean ezagutu genituen **Badena eta eztena** atala ekarri diguten Eneko Iurramedi eta Mikel Lakasta. Hilabete honetan sartu dira, ordea, bete-betean lehenengo kapituluan. Elkanoren mundu birako historia ezagunak eta ez hain ezagunak kontatu dizkigute.

Badena eta eztena. Gure historiaren errepaso zorrotza entzuteko



Irratiko kontuez gain, agenda, Pulunpe aldizkariak...

Esan Erran irratiako edukiak bakarrik ez, noski. Azkeneko albisteak, eguneratuak, eskualdeko agenda eta Pulunpeko PDF guztiak ere, **amezti.eusen.**





Egun Ero irratsaioan egindako elkarrizketak berriz entzuteko aukera ere bada Amezti.eus-en. Azaroaren 30ean izan zen greba feminista orokorraren inguruan galdetu zioten Aiora Epelderi, Euskal Herriko Mugimendu Feministako eta eskualdeko greba komiteko kideari, esate baterako.

Aiora Epelderi egindako elkarrizketa entzuteko. Greba feminista orokorraren ingurukoa ▶



Larraitzarren egindako Gozamenez Kutxa tailerraren inguruan Itsaso Bakedano sexologoari, bestetik.

Gozamenez kutxaren inguruko elkarrizketa, Itsaso Bakedanori ▶



Dakizuenez, aurten, ostiraletan, **Memoriaren txokoarekin** txandakatuko dugu Egun Ero Kantuz. Hilabete honetako azkena Orson Welles eta **munduen gerra** haren irratsaio famatuari eskaini diogu.

Memoriaren txokoa. Orson Welles ▶



Hau da Esan Erran irratiako edukietan nabarmendu duguna, baina, guzti guztiak aurkituko dituzue webgunean. Kolaborazioez eta elkarrizketez gain, Egun Ero irratsaio guztiak igotzen dira. Egunean bertan edo zuzenekoan entzuteko aukerarik ez baduzue, noiznahi entzuteko.

Esan Erran irratiako edukiak amezti.eusen ▶



Zorionak Zorionak!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Txokolatearen hilabetea

Datozen ostiral kulturelek txokolatearen hilabete bihurtuko dute abendua. Gainera, ekimenaren azken bi urteko balantzea ere, ale honetako kolaborazioan.

Bai, txokolatearen hilabetea izango da Gizarte Etxean, **SETEM eta Pueblos Hermanos** Gobernu Kanpoko Erakundeen eskutik kakao eta txokolatearekin -eta bidezko merkataritzarekin, azken batean- lotutako hiru ekimen programatu direlako.

Lehenengoa, abenduaren erakusketa da. Kakaoari buruzko sei panelez osatutako erakusketa honetan produktu honen inguruan sakondu ahal izango da: non ekoizten den, non kontsumitzen den eta bere ekoizpenak familiei, ekoizle txikiei eta munduko klimari nola eragiten dien.

Gero, **abenduaren 15ean** txokolate dastaketa bat izango dugu. Ummmm! Haiti, Boli Kosta eta Ekuadorreko hiru txokolate eskainiko dizkigu Ekuadorreko **Maqita kooperatibako** partaide batek. Baina, adi! Alde batetik, dastaketa honetan parte hartzeko alde aurretik izena eman behar da liburutegia@ultzama.es helbidean; eta, bestetik, ordutegia ez da ohikoa izango: 17:30ean gozatuko dugu dastaketaz, baina, **17:00etan** hasiko da jarduera, erakusketaren bisita gidatu batean lagunduko baitigute antolatzaileek.



Eta txokolatearen hilabetea bukatzeko, umeendako tailerra egingo da: *La isla de Chocollat*. Jolastea eta ikastea jolas kolaboratiboarekin uztartuko dira tailer honetan. Kakaoa ekoizteko ereduak ezagutzeko saio ludiko hau **abenduaren 29an, 17:00etan**, izango da **Larraitzarko Gizarte Etxean**.

Baina gizakia ez da txokolateaz soilik bizi, beraz, horretaz aparte, **abenduaren 29an** ere, baina **Iraizozko San Martin elizan eta 19:00etan**, bertako **Amati abesbatzak eta Berriozarko Elkarrekin abesbatzak** gabon kanten kontzertu bat eskainiko dute.



Ostiral kulturalen balantze txiki bat

Pasa den hilabetean Gizarte Etxeko parte-hartze kontseiluaren bilera izan zen, eta liburutegian, Ostiral Kulturalen arduradunak garen aldetik, egitasmo kultural honetan zer egiten dugun jakinarazteko aprobeixatu genuen, orain konpartitu nahi dugun txosten txiki baten bidez.

Hauek dira daturik aipagarrienak:

- Azken bi urteotan Gizarte Etxean mota guztietako ia **90 jarduera** egin dira (kontzertuak, antzerkiak, erakusketak, zinema edo dokumentalak, ipuin kontaketa, hitzaldiak...).

- **17 erakusketa** izan ditugu, batzuk partikularrenak, baina beste batzuk GKEen edo Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Pintura, eskultura edo argazkigintzakoak izan dira, agian ugariak, azken hauek. Eta azpimarratzekoa da bertako artisten parte-hartzea, erdian baino gehiago.

- **20 kontzertu** eskaini dira, horietako batzuk lehen mailako artista edo taldeekin, esate baterako Gari (Hertzainak), Diego Vasallo (Duncan Dhu), Kutxi Romero (Marea) Joseba Irazoki; Petti... baina baita bertako taldeekin edo talde txikiagoekin ere. Mota guztietako kontzertuei ireki diegu atea: pop, rock, umeendako musika, abesbatzak, heavy metal, jazz, heavy metal jazz moduan...

- **11 dokumental** edo pelikula proiektatu dira. Gai sozialak dituzten dokumentalak dira nagusi, eta horietan zuzendariak edo protagonistak izan ditugu gehienetan. Mota guztietako dokumentalak izan ditugu: indarkeria matxistari buruzkoak, landa-eremuko emakumeenak, musika, natura... Bereziki arrakastatsua izan zen bat aipatzeagatik, aretoa bete zuena: *San Simon 62*, Lizasoko komunari buruzkoa. Gainera, gure aretora hurbildu diren zuzendarien artean: Oskar Alegria, Virginia Senosian eta Juan Luis Napal, Iñaki Alforja...

- **Umeentzako jarduerak** ere oso arrakastatsua izan dira. **10** izan dira: tailerrak, ipuin kontalariak, musika... eta kasu honetan, euskaraz izan dira guztiak. Honen harira, esan behar dugu ostiral kulturalen programazioaren erdia, gutxi gorabehera, euskaraz dela. Umeendako ekimenak, ordea, euskara hutsean izaten dira beti (araua konfirmatzeko, salbuespen bat egingo dugu abenduan, txokolate tailerrarekin).

- Eta horretaz gainera, hitzaldiak, liburu edo komiki aurkezpenak, antzezlanak ere ekarri ditugu. Amets Arzallus, Joseba Sarrionandia, Irati Jimenez, Amelia Tiganus, Aranzadi taldekoak, Patxi Bisquert aktorea, Asisko Urmeneta, Irantzu Varela, Axolagabe, Iluna Producciones, besteak beste. Eta ekimen berezi batzuk ere: ardo dastaketa literarioa, emakume afrikar talde baten topaketa... Ekimen hauek guztiak dohainik izan dira, gainera.

 **Patxi Irurzun,**
Ultzamako liburuzaina



2023ko urria

2023ko urrian gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

BASABURUA Igoa

Rio Goriz Eiguren, **Karakoetxean** sortua urriaren 28an. Alejandro eta Aldana Carolinaren semea.



▲ Rios Goris Eiguren

Ezkontzak:

ULTZAMA Arraitz

Aitor Diez de Ultzurrun Barberena, Ultzamako bentako semea eta Eltzaburuko Mirari Larraiatz Arregi, urriaren 28an ezkondu ziren Arraitzen. Bertan biziko dira.

“ Zorionak ezkonberriei ”



▲ Mirari eta Aitor elizatarian

“ Zorionak gurasoei ”

“ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna. ”

Heriotzak:

BASABURUA Gartzaron

Ana Maria Saratsola Arregi, **Simonen bentako** etxeakoandre zaharra, urriaren 5ean hil zen 88 urtetan.



▲ Ana Mari

Jauntsarats

Josefa Sasturain Alberro, **Txokolateroren** etxeako alaba, urriaren 28an hil zen 89 urtetan.



▲ Joxepita

ULTZAMA Suarbe

Juan Ariztegi Mariezkurrena, **Etxebertzeko** nagusia, urriaren 9an hil zen, 84 urtetan.



▲ Juanito

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karricolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





2023ko Zozketa mundiala

Sarien zerrenda



x3

Asteburuko bidaiak
2 lagunentzat



x3

Elgorriagako bainu
etxean asteburuko
egonaldiak



x2

Landetxetan
egonaldiak




x18

Bazkari edo afari
bikoitz (inguruko
ostatuetan)



x10

Txerri gizen



x10

Axuri eder

8 Esneki sorta
30 Saskitto
25 gazta
Eta... beste anitz sari